

GIL 136 Jaizkibelego pseudo-paramoudrak



Geometria zirkularreko banakako paramoudren multzoa.

Kokapena

- **Koordenatu geografikoak:**

Lat.: 43°22' 24,37" N
Long.: 1°51' 34,87" W

- **UTM koordenatuak:**

X: 592.380,60 m
Y: 4.802.917,06 m



Nola iritsi

Hartu Lezoren eta Hondarribiaren arteko GI-3440 errepidea, eta, Jaizkibel gaina pasatutakoan, hartu iparralderantz ateratzen den pista. Oinez, jarraitu pista horretatik ur-ertzerara iritsi arte.



Paramoudra-elkarte bat haien sortzaile den aztarna organikoaren bidean.



Kasu guztietan, barneko hodiak ikus daitezke; konkrezioa eratzeko hazi gisa jokatzen dute hodiak.

GILaren deskribapena

Jaizkibelgo paramoudrak konkrezio silizeoz osatutako iknoforma handiak dira, itsas organismoen aztarnen inguruan antolatuta. Zenozoikoko zementu karbonatuzko hare-harri silizeoetan sortu dira, eta munduan hobekien kontserbatutakoak dira.

Paramoudrak hiru atalez osatuak daude: Erdiko kordoia, poliketo fosilen aztarnak eta konkrezio silizeo inguratzaila. Bi hipotesi daude haien eraketaren inguruan: Zijlstra (1995) eta Clayton (1986). Hala ere, bi autoreek diote hodi fosiletatik abiatuta eratu zirela. Konkrezio silizeoak etapa diagenetiko gehienbat goiztiarretan osatu ziren, askotariko redox baldintzetan zehar.

Tokiaren itxura harrigarria da: 2.500 metro karratuko eremu bat da, tamaina askoko forma biribil ugaz betea. Konkrezioak 1 m-ko diametroa izatera irits daitezke, eta, batzuetan, zenbait konkrezio elkarri lotuta agertzen dira, pista organikoari jarraituz. Guztietan, gutxienez barne-hodi bat ikus daiteke.

Behatzeko punturik onena


In situ.

Erlazionatutako GILak

- **Geografikoki:** GIL 50, GIL 77, GIL 99, GIL 115.
- **Gaiari dagokionez:** GIL 135, GIL 28.



Paramoudra erabat biribildua eta bakartua, metro bat baino gehiagoko diametrokoa.



Osaketa-hipotesiak, A) Zijlstra (1995) eta B) Clayton (1986).

GIL-aren balorazioa

Balorazioa		Baxua	Ertaina	Altua	Oso altua
Interes zientifikoa	Geomorfologikoa				
	Hidrogeologikoa				
	Tektoniko/Estrukturala				
	Estratigrafikoa				
	Paleontologikoa			●	
	Petrologikoa			●	
	Mineral-hobiak				
Beste batzuk					
Interes ekonomikoa (erauzketa)			Iraganean	Potentziala	Martxan
Interes kulturala:					
Oharrak:					

Bibliografia espezifikoa

- http://www.dailymotion.com/video/xjf7rw_projection-conference-decouverte-paleontologique-les-paramoudras-du-jaizkibel_news
- <http://www.aranzadi-zientziak.org/fileadmin/docs/espeleologia/Galan-Molia.Paramoudras.pdf>
- <http://www.eve.es/publicaciones/cartografia/Mapas/40-IV.pdf>